

# SIORATZEA

⊕ kalitate ⊖ arrisku ⊕ ekoizpen



## HOBETU KALITATEA ETA SAIHESTU ARRISKUAK


Mikrobio batzuek gaixotasunak eragin ditzakete animalietan, behar baino gehiago ugaritzen badira.

Gaixotasun horietako batzuek (botulismoak, listeriosiak edo onddoek eragindako beste batzuek) behi gehienak hiltzea eta animalia gaixoek ekoiztako esnea bota behar izatea ekar dezakete.

Siloratze kutsatua



Nahasgailua  
(kutsadura nahasketa osoan)



Gaixotasuna animalietan  
(botulismoa: gaixotutakoen % 100 hiltzea)




Esnea eta esnekiak  
deuseztatzea (gazta, etab.)



Kostu ekonomikoa  
handiagoa



Konfiantza galtzea



## ★ GOMENDIOAK



### 1 BELARRA MOZTU BAINO LEHEN:

Saihestu lurra egotea.  
Ez moztu belarra zoruaren parean.  
Saihestu belarra moztea hezetasuna/lokatzat dagoen partzeletan.  
Kontuz sator-zuloekin.



### 2 MOZTU ONDOREN:

Utzi belarra 24 orduz lehortzen.  
Eman buelta belarrari siloratu aurretik, edo egin bolak.  
Bestela, erabili gehigarriak eta azidifikatzaileak.

### 3 SIORATZEAN EDO BOLAK EGITEAN:

Saihestu animalia hilak egotea (txoriak, saguak...)  
Kendu ahalik eta aire gehiena.  
Prentsatu/estutu ondo.  
Itxi ondo-Zulorik gabeko bilgarria.



### 4 SIORATUTAKOAK KONTSUMITZEAN:

Baztertu bola, gorpuen (karraskariak, txoriak, etab.) hondakinak (lumak, ileak, hezurak, etab.) badaude.  
Deuseztatu urdindutako hondakinak edo bola osoa, kalitatearen inguruko zalantzak badituzu (usain txarra edo usain ezatsegina badu, bolak plastiko apurtua badu, etab.).



★ Belar-siloea egitean gomendio horiei jarraitzen badiezu, hobetu egingo duzu siloratutakoaren kalitatea eta nabarmen murriztuko duzu gaixotasun edo intoxikazio horiek gertatzeko arriskua.

## ✋ GOGORATU:

### BELARRAREN KALITATEA:

Aniztasuna eta oreka belar-mota ezberdinen artean (gramineoak eta leguminosoak edo hirustak).  
Berriz erein, oreka desagertzen bada (espezieren bat nagusitzen bada, hirustarik ez badago, belar txarrak badaude, etab.).  
Komeni da laginak hartzea eta lurra 4-5 urtean behinaztertzea.  
Ongarritu behar bezala.

### MOZTEKO SASOIA:

Hozitzen hastean.  
Hezetasun gutxiago dagoenean (eguerdian).



### BELAR AHALIK ETA LEHORRENA:

Euririk edo ihintzik gabekoa.  
Batu belarra bero handiena egiten duenean.



### BESTELAKO NEURRI OROKORRAK:

Bazkaleku eta edanleku garbiak erabili.  
Eragotzi basoko eta etxeko animaliei pentsuetara sartzea.  
Elikatu animaliak energia, proteina eta mineralak orekatuak dituzten dietekin, beren jokamoldea eraldatzen duen nutrizio-gabeziak saihesteko (esate baterako, pikatzea edo lurretik kontsumitzea).

